

**FRANTZIAKO ESTATUAK EUSKARAREN  
ETA EUSKAL ELIZGIZONEN AURKA 1889-1906  
BITARTEAN EGINDAKO JAZARPENAREN  
KONTAERA DOKUMENTUEN ARGITAN**

**Sarrera**

Frantziako Iraultza handiak eta gerokoek, ezaguna den «Liberté, Egalité, Fraternité» bere goiburua oinperatuz, mende bat baino gehiagotan Euskal Herriaren aurkako jazarpena izan zuten ondoriotzat, bai Euskal Herria herri gisa jazartuz, baita euskaldunak bana-banaka jazartuz ere. Euskal Herriaren askatasuna eta erlijio askatasuna suntsitzea lortu zuten eta euskal kulturari eta bereziki euskarari ia azken kolpea ematea. Hau guzti hau Iraultza horren erdirakoitasunagatik. Errejimen zaharra euskal kulturarentzat hain kaltegarri izan bazen, Iraultzak, bere erdirakoitasunez, euskara ia azken arnasatan jarri zuen Iparraldean.

Frantziako Estatu laiko eta Elizaren etsaiak, bere burua erlijio bihurtu nahirik, polizi egoera izugarri bat jarri zuen, dena mende eta kontrolpean ezarriz; guztian eta guztiengan aginduz...

Mitoak ahanzkortasunez gozatuak daitezenean, oso arriskutsu bihurtzen dira.

Honetaz konturatzeko ikerketa-liburuak irakurtzea eta batez ere artxiboetan dauden agirietan murgiltzea bezalakorik ez dago. Adibidez, Parisko Artxibo Nazionalera jotzea da horretarako abagunerik hoberenetarikoa. Artxibo horretan esaten ari